

Bazkide maitea:

Datorren **2025eko apirilaren 5ean, Portugaleten** (Bizkaia) ospatuko ditugu Euskal Herriko Txistulari Elkartearen **urteko batzar orokorra** eta **2025eko Txistu Eguna**. Horiatarako deialdia bidaltzen dizugu mezu honekin batera.

Beste urte oso baten ondoren, bada garaia aurreko asanbladan ekin genituen erronken balorazioa egiteko, eta urtean zehar agertu diren erronka berriei aurre egiteko estrategiak aurkezteko.

Horretaz gainera urteko gaiak eta kontuak jorratuko ditugu eta berriro ere elkar ikusteko eta topo zein topa egiteko aukera edukiko dugu, txistua joaz eta janaz zein edanaz.

Jarraian, hainbat argibide egun horretarako:

1. Asanbladako gai-ordena asanblada baino lehen helaraziko zaizu.
2. **Bazkarira geratu nahi izan ezker, 35€-ko transferentzia** egin jarraian agertzen den kontu korronteetako batera, hurrengo kontzeptuarekin: **IZEN-ABIZENAK, BAZKARIA (ARRAINA ALA OKELA nahi duzun adierazi)**
3. Kontu korronteak:
 - a. Kutxabank: ES31 2095 5064 8091 0074 8227
 - b. Laboral Kutxa: ES49 3035 0060 4506 0003 0609
4. Bazkarirako **izen-ematea martxoaren 28a arte** izango da.
5. 2 autobus jarriko dira. Autobusen egitaraua hurrena izango da:
 - a. Baiona-Donostia-Portugalete.
 - b. Iruñea-Gasteiz-Portugalete.
6. Autobusen ordutegia eta geltoki zehatzak aurrerago zehaztu eta helaraziko dira. Zerbitzua erabili nahi ezker jarri Euskal Herriko Txistulari Elkartearekin harremanetan: txistulari@txistulari.eus / tf. **688 842 894**.

Jarraian ere, eguneko plana aurkezten dizugu:

9:00 – San Roke Plazan elkarretaratzea (metro irteera) eta kalejira.

10:00 – Asanblada Orokorra Santa Klara Kulturgunean

11:45 – Hamaiketakoa

12:30 – Alkatearen ongi-etorria

12:45 – Kontzertua.

14:30 – Bazkaria Merkatuan

17:30 – Mikro irekia

19:00 – Kantu-kalejira

Laster elkar ikusteko esperantzan, beraz, agur bero bat:

Euskal Herriko Txistulari Elkarte
Zuzendaritza Batzordea

